

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskarak aurrera darrai


Euskal Estatistika Erakundeak, EUSTATEk, *Hezkuntza eta Euskara* liburukia argitaratu berri du *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak 1991* liburu sortan. Hauek dira liburuki honetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak:

- **Hizkuntza gaitasuna:**
- Euskal Autonomi Elkartean gero eta biztanle gutxiago izan arren, bai euskaldunak eta baita ia-euskaldunak gero eta gehiago dira.
- 1981etik 1991ra, euskaldunek eta ia-euskaldunek gora egin dute


hiru lurraldeetan, igoera, gainera, ia herri guztietan gertatu delarik.

- Euskaldunak ia toki guztietan gero eta gehiago izan arren, EAEko biztanle gehienak, oraindik, zona soziolinguistikorik erdaldunenetan bizi dira.
- Biztanleria osoa hartuta erdaldunak baino gutxiago izan arren, adin talderik gazteenetan, euskaldunak, jadanik, nagusi dira.
- OHOk azken urteetako ikasleen artean ageri dira erdaldun elebazarren portzentaiarik txikiak.

Euskal Autonomi Elkartea adin taldeak



HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA



Iturria: 1991ko zentsua

- **Ama hizkuntza (3 urte arte ikasitakoa):**
- Gaztelania da lautik hiru biztanleren ama hizkuntza. Biztanle guztiak hartuz gero, gero eta gehiagok dute, ama hizkuntza, euskara nahiz euskara eta gaztelania. Baina, aldi berean, gaztelania, gero eta euskaldun gehiagoren ama hizkuntza da.

- **Etxeko hizkuntza:**
- Euskaldunek, gehienetan, euskaraz hitz egiten dute etxean.
- Gazteek, etxean, zaharrek baino gutxiago hitz egiten dute euskaraz..
- Bi dira, euskaraz, gazteek zaharrek baino gutxiago hitz egiteko arrazoiak: bata, gazteen artean euskaldunberriak ugariagoak diren ezker, beren familietan erdaldun gehiago izatea eta, bestea, erdaraz euskaraz baino errazago hitz egitea.
- Gune soziolinguistikorik euskaldunenetako euskaldunek hitz egiten dute gehien euskaraz.

ETBko uhin berria

Puri-purian daude. Euskal Telebistaren lehen kateako aurkezleen belaunaldi berri eta freskoa osatzen dute: Jon Andueza (Hor dago koxka), Joxe Felipe Auzmendi (Gezurra nagusi) eta Anne Igarteburu (Boulevard eta Show show).

Ikastolan ibilitakoak, hirurek dute zerikusirik Estatu Batuekin. Jon, 28, arrasatearra Oregonen jaio zen. Joxe Felipek, 28, eta Annek, 24, beasaindarra eta elorriarra hurrenez hurren, Estatu Batuetan egin zituzten UBI ikasketak.

Hirurak bateratsu hasi ziren lanean telebistan. Ameriketatik bueltan telebistarako gidioiak itzultzen eta bikoizketa lanak egiten hasi eta gero, 1991n Joxe Felipe ETBko Txandaka aurkezten hasi zen. Hiru hilabetez egunero azaldu zen kamararen aurrean. Gezurra nagusi lehiaketarekin urtebete darama. Telebistan asko ikasi duela aitortu digu. Agian horregatik gustora osatuko luke hainbat ideia interesgarri gauzatzeko gai izango litzatekeen talde berria.

EHUn Kazetaritza ikasi ondoren Jon herri komunikabideetan egin da



Jon Andueza



Anne Igarteburu



Joxe Felipe Auzmendi

kazetari. Arrasate Pressen eta Berrigaran lan egin zuen eta Arrasate Telebistako albistegietako kazetari eta aurkezle izan zen bi urtez. "Oso jende gutxi ginenez, denetatik egiten ikasi nuen. Oraingo lanean hartzen zaila den ikuspegi orokorra eman zidan Arrasateko eskarmentuak". Hainbat kazetaritza eta literatura sari irabazi dituen arrasatear honek, sorkuntzarako duen ahalmenaz baliatuz, berea izango den programa egin nahi luke.

Annek Enpresa Gestioa eta Harreman Publikoak karrerak egin ditu eta modelo izan da 17 urte bete zituenetik. Orain Arte Dramatikoa

ikasten ari da EHUn. Bere lehen urratsak telebista munduan Arrasate Telebistan eman zituen. "Han hartutako esperientziak asko balio izan dit. ETBn bezala ATBn ere medioarekiko errespetua eta lana ondo egiteko gogoia nituen". Telebista handian hasi zenetik gelditu ere ez da egin: produkzio batzarrak, gonbidatuekin egin beharreko egonaldiak, programen grabazioak, aurkezpen ofizialak, dantza eskolak, modelo lanak..., edonor, baina ez uhin berria, itota uzteko moduko agenda.

ETB Zuberoara iritsi da. 1993ko abenduaren 30etik aurrera Euskal Telebistako, lehen katea Zuberoako Maule eta Atharratzeko kantonamenduetan ikus liteke. Jarri behar izan diren bost errepikagailuen kostua 20 milioi pta.tik gorakoa izan da eta zuberotarren kontura joan da. EITBren 11. urteurrenean ETBren seinalea ia Euskal Herri osora zabaldu da.

Gerriko V. Ikerlan Sariketa. Irekita dago Jose Inazio Gerrikoren omenez Goiherriko Euskal Eskolak, Maizpide euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak antolatutako V. ikerlan sariketa. Gaia Goierriri dagokion edozein alorretakoa izango da. Lanak euskaraz aurkeztu beharko dira apirilaren 1a baino lehen. Lehen hiru sariak ekainaren 2an jakinaraziko dira Lazkaoko udaletxean. Tfnoa.: (943) 16 02 82.

Euskararen aldeko hitzarmena Urretxu-Zumarragan. Urretxuko eta Zumarragako 44 erakundek euskara bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 21ean. Itun honen bidez euren arteko harremanak eta eskainiko dituzten zerbitzuak euskaraz izatea nahi dute. 1990ean lehen hitzarmena Arrasaten izenpetu zenetik, zortzi dira antzerako itunak sinatu dituzten herriak.

Bost irrati-nobela gehiago kasetean. HABEk Antzoki iluna saileko bost irrati nobela gehiago, argitaratu ditu, denak Antonio Maria Labaienen obretan oinarrituta. Denetara 14 dira, ordubeteko 50 kasetetan, HABEk Euskadi Irratiarekin batera atera dituen irrati-nobelak. Joxe R. Zubimendik egokitu ditu testuak eta grabazioak Donostiako Eresoinka etxean egin dira.

Euskararen Berripaperak 10.000 harpidedun ditu

Hona hemen Euskararen Berripaperari buruzko zenbait xehetasun.

- 9.829 harpidedun ditu, behean ikusten den moduan banatuak.
 - Euskal Herritik kanpo 402 harpidedun ditu.
- Hilero inprimatzen diren aleak, ordea, 12.143 dira, 2.134


harpidedunek euskarazko alea eta gaztelaniarazkoa jasotzen baitituzte.

- Ingelesezko bertsioa (500 ale) mundu zabaleko unibertsitate eta euskararekin zerikusirik duten erakunde eta lagunen artean banatzen da urtean birritan.

Olga de Cardozo, literatura irakasle paraguaytarra Euskal Herriko eta Kataluniako hezkuntza sistemak aztertzen aritu da gure artean, aurten lehen aldiz guarani hizkuntza sartuko baitute Paraguayko hezkuntza sisteman.

Mary C. Iribarren irakasleak Euskara sustratoaren eragina hispano-erromantzean izeneko lana argitara eman du *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian. Bertan dioenez, euskararen eragina da gaztelaniaren fonologiak XVI. eta XVII. mendeetan izandako aldaketak esplikatzeko azalpenik zentzuzkoena.

Juan Garcia Blasco Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore izendatu dute bigarren aldiz urtarrilaren 13an egindako hauteskundeetan. Lau urteko agintealdia izango du. Hautatu ondoren hartu duen lehen erabakietako bat Euskararako errektoreordea izendatzea izan da.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz
(Araba)

Euskaraz
Gaztelaraz

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Kodea:.....


Lurralde:.....

Tel.:

Argitalpenak

Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 1991. Hezkuntza eta Euskara

EUSTATEk argitara eman duen liburu honetan Euskal Autonomi Elkarteko hezkuntzaren ezaugarriak eta euskararen ezagutzak eta erabilerak 1981-1991 hamarkadan egin duten bilakaeraren berri ematen da. Azterketa sei zatitan banatuta dator.



Galdezka

Bernardo Atxaga

G. Euskal literaturaren enbaxadore al dugu Bernardo Atxaga?

E. 1545. urtea zen euskaraz idatzi zen lehen liburuak Bordelen (Frantzian) argia ikusi zuenean: *Linguae Vasconum Primitiae*. Hitzaurrean Bernart Etxeparek ederki erakusten du hizkuntzarekiko ardura eta "obraren bat heuskaraz idatzirik mundu guzietara publiko dadin" desio du. Harez gero euskaraz egindako literatura etengabe joan da garatzen eta orain Bernardo Atxaga eta bere lana ditu munduari eskaintzeko moduan.

Honez gero baten batek emango zion Bernardo Atxagari lekuren bat euskaldun unibertsalen artean. Hori horrela da Bernardo Atxaga, XVI. mendeko beste Bernardo hura bezala, hizkuntzan eta lurrean errotutako arbola bezalakoa delako. Edo baita Atxagaren etxeak, Euskal Herrian oinarriturik, bere atea munduari irekita dituelako.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Abadeak euskalduntzeko saio gehiago

Bizkaiko Elizbarrutiak ontzat jo ditu euskara ez zekiten abadeentzat iaz eratu zuen ikastaroaren emaitzak eta dagoeneko jarraipena ematea erabaki du.

Hasieran hogeitasei eta amaieran hamabi izan ziren sei hilabetetan zehar Bizkaiko Elizbarrutiak antolatutako ikastaroan eskuhartu zuten abadeak. Euskara ez zekitenez, helburua elizan erabili behar zituzten testuak ulertu eta zuzen eta duintasunez irakurtzea zen. Irakasle baten laguntzarekin, hurrengo igandeko ebangelioa irakurtzen zuten eta bertatik ateratzen zituzten gramatikari eta hiztegiari zegozkien irakaspenak. Testuen irakurketa ere landu zuten.

Elizbarrutiak aitortu duenez, ikastaroan eskuhartu zutenei errazagoa egiten zaie gaur egun ebangelioa ulertzea, ondo gertatuta daude aurretik prestatutako testu

liturgikoak euskaraz zuzentasunez irakurtzeko eta, ondorioz, duintasun



osoz zuzen ditzakete euskaraz egindako elizkizunak.

Guzti hori dela eta, hasi dira dagoeneko aurtengo eskolak. Iaz egindakoa aintzat hartzea eta ahal dela sendotzea da aurtengo jomuga. Iazko metodologia utzi barik, elkarrizketa eta zuzen idatzitako esaldi laburren erredakzioa landuko dituzte batipat.

✓ Kontutan hartzeko

- **Jardunaldiak: hizkuntzaren erabilera zuzena.**

Euskaltzaindiak antolatuta, otsailaren 24tik 26ra bitartean izango dira jardunaldi hauek, Euskaltzaindiaren Bilboko etxean. Administrazioan, hezkuntzan eta komunikabideetan erabiltzen den hizkuntza aztertuko da. Estatu espainiarreko hizkuntza akademiak ere bilduko dira.

- **"Alakiketan" Parisen.** Argia dantza taldeak Parisko Champs Elysées delakoan eskainiko du Alakiketan emankizuna, martxoaren 12an, arratsaldeko 8.30etan.

- **Iparaldeko literaturaz.** Itxaro Borda eta Marcel Bedaxagarre mintzatuko dira gai horretaz Iruñeko Hizkuntza Eskolan otsailaren 22an.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA